

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea-ekialdea

DATA: 20/11/2019

Saila	Laburpena	Erantzuna
Obrak	Bizilagun batek galdetu du ea Errebal Plazia eraikinaren obrekin igogailu bat eraikitzea aurreikusi den.	Bi igogailu publiko aurreikusi dira, bata eskailera mekanikoen ondoan, eta bestea Merkatu eta Muzategi aldera.
Udaltzaingoa	Salatu du ez dela ezer ikusten Pagaegi eta Matxariaren arteko bidegurutzean saihebiderrantz. Esan du hor aparkatzen duten autoek bisibilitatea murrizten dutela.	Galtzadan pintatutako stop-marran geldituz gero, eta kontuz irtenda, ez dago arazorik.
Obrak	Salatu du Matxariako azken etxearen parean zati bat asfaltatu barik dagoela.	Berrikusi egingo da eta, bidezkoa bada, aurreikusitako asfaltatze-lanen zerrendan sartuko da. Lanak aurrekontu-eskuragarritasunaren arabera joango dira egiten.
Udaltzaingoa	Salatu du zenbat txakur-kaka dagoen. Eskatu du neurriak hartzeko arazo hau kontrolatzeko, eta galdetu du ea jar litekeen ADN bidez antzemateko sistema.	Antzematen denean pertsona batzuek ez dituztela txakur-kakak batzen, salaketa jartzen zaie. ADNrekin antzemateko sistema martxan jartzeari dagokionez, aztertu egin da, baina ez da bideragarri ikusten.
Obrak/ Zerbitzuak	Urtzaile kaleko auzokide batek galdetu du ea aurreikusita dagoen kale horretako espaloiak konpontzea. Gainera, esan du estolderien estalkiak oso irristagarriak direla.	Erabaki zen irristatzearen aurkako tratamendua egitea labainkorren zeuden kutxatiletan.
Obrak	Kexu da Araneko parkearen zorua, pintatu ondoren, labainkor dagoelako.	Irristakortasun-probak egin ziren, eta ez zen inolako arazorik antzeman.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea-ekialdea

DATA: 20/11/2019

Saila	Laburpena	Erantzuna
Zerbitzuak	Bizilagun batek esan du Urtzaile 4 zenbakian dagoen iturriaren kainua kendu zela eta ez dela atzera ere jarri.	Udal Lantaldeak metakrilato bat jarriko du ixteko.
Udaltzaingoa	Auzokide batek eskatu du Udaltzaingoa gehiago kontrolatzea ingurua, batez ere, gauzez. Esan duenez, auto asko azaldu dira gurpilak zulatuta eta ispiluak apurtuta.	Udaltzaingoa indartu egin du kontrola.
Udaltzaingoa	Pagaegi kaleko bizilagun batek dio kale horretan dauden edukiontziak beti daudela beteta. Esan du fruta-dendakoek kaxa asko lagatzen dituztela kanpoan eta pertsona batzuek edukiontzietako zaborra atera eta kanpoan lagatzen dutela interesatzen ez zaiena.	Antzematen denean denda edo partikular batek modu desegokian lagatzen duela zaborra, ohartarazi egiten zaio, eta, beharrezkoa bada, salaketa jartzen da.
Obrak	Jardiñetako auzokide batek salatu du 29-31-33-35 zenbakietara iristeko eskailera asko daudela.	Aurreikusi da bi igogailu jartzea inguru horretan.
Udaltzaingoa	Kexu da Jardiñetak ez duelako Udalbus zerbitzurik.	Inguru horretako bizilagunek taxibus-zerbitzua dute eskura.
Zerbitzuak	Gune batzuk eskatu ditu Jardiñetan umeek jolasteko.	Jardiñetan, haurrentzako parke bat dago 1 eta 3 zenbakien parean. Aztertuko da zer leku dagoen parke berriak jartzeko..
Obrak	Parkeak eskatu ditu Jardiñetan pertsona nagusientzat.	Ez da toki egokitzat jotzen nagusientzako parke bat jartzeko. Sakuneko pasealekua pentsatu da, baina iristeko zailtasunak ez du bideragarri egiten.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea-ekialdea

DATA: 20/11/2019

Saila	Laburpena	Erantzuna
Obrak	Galdetu du Jardiñeta 29-31-33-35 zenbakietako igogailuaren obregatik.	Inguru horretan bi igogailu jartzea aurreikusi da.
Zerbitzuak	Bizilagun baten adierazi du Jardiñeta 29-31-33-35 zenbakien artean, okaran-arbola batzuk daudela eltxoak erakartzen dituztenak; haien fruta ez du inork jasotzen eta lurrean usteltzen dira.	Lursaila ez da ez Udalarena ez pribatua. Lursailaren jabetza katastroan zuzendu behar dute.
Obrak/Udaltzaingoa	Auzokide bat kexu da Errebal inguruko kaleak oso estuak direlako. Galdetu du ea dagoen planik oinezkoentzako gunek zabaltzeko eta ibilgailuen igarobidea murrizteko.	Errebal kaleko obrak egiten ari dira. Espaloiak zabaldu eta koexistentzia gunek bat sortuko da.
Hirigintza	Galdetu du ea zerbait egin behar den Bittor Sarasquetako epaitegi zaharraren eraikinean.	Epaitegiko eraikin zaharra Eusko Jaurlaritzarena da. Etxebizitzaren Lurralde Ordezkaritzara igaro da, eta aurreikusita dago bertan zuzkidura-etxeak eta udal lokalak egitea.
Hirigintza	Salatu du Bittor Sarasaquetako garajeen estraktoreak asko entzuten direla.	Bittor Sarasquetako garajeek komunitate bat osatzen dute eta hari dagokio instalazioen mantenimenduaz arduratzea. Salatutako zarata-arazoaren aurrean, eta instalazioa konpontzeko eskatzeko, egiaztatu egin behar da arazoa (Bizitegi-erabilerarako Araudien ezarritako dezibelioen mugak gainditzen direla). Udaltzaingoa eskatu behar zaio zarata jasaten duen etxebizitzan neurketa bat egiteko.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea-ekialdea

DATA: 20/11/2019

Saila	Laburpena	Erantzuna
Udaltzaingoa	Auzotar batek uste du Udaltzaingoa sarriagotan pasatu beharko litzatekeela Urkizuko dorreetako gunetik. Adierazi du kotxe asko egoten direla aparkatuta aldapan, oinezkoen igarobidea eragotziz.	Indartu egingo da Udaltzaingoaren presentzia. Eragozpen puntualen bat ikusiz gero, Udaltzaingolari esatea komeni da, salaketa jar dezaten.
Obrak	Urkizuko dorreetako aldapa asfaltatzea eskatu du.	Egin da dagoeneko.
Obrak	Galdetu du Errebal Plazia eraikinaren obretako epeengatik, eta ea betetzen ari diren ala ez.	Obrak amaitzeko epea 2021eko maiatzaren 31n amaitzen da.
Obrak	Bizilagun batek galdetu du ea zer fase aurreikusi diren Errebal Plazaren erabilera definitzeko prozesu parte-hartzailean.	
Obrak	Galdetu du ea aldaketarik egin den Errebal Plazako baserritarrentzako gunean.	Ez da proiektuari buruzko aldaketarik egin.
Hirigintza	Galdetu du ea Arragueta 15 zenbakiko eraikina erortzea aurreikus zitekeen.	Auzoko bileran adierazi zen bezala, ezkutuko kalteen ondorioz etorri zen behera etxea. Aurretik antzemandako seinaleei esker hustu ahal izan zen eraikina, behera etorri baino lehen.
Obrak	Auzotar batek salatu du zenbat trafiko dagoen kalean, eta horrek zuloak eragiten dituela asfaltuan.	Berriz ere zolatu behar da auzoa.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea-ekialdea

DATA: 20/11/2019

Saila	Laburpena	Erantzuna
Zerbitzuak	Kexu da leku batzuetan edukiontziak bankuen artean kokatuta daudelako. Eskatu du bi gauzetako bat lekuz aldatzeko.	
Zerbitzuak	Salatu du Jardifñeta 4-6-8 zenbakietako gunea oso zikin dagoela. Eskatu du inausketak egiteko eta garbitzeko.	Erraklamatutako lursailaren jabearekin harremanetan jarri ondoren, garbitu eta inaustu egin du.
Obrak	Bizilagun batek galdetu du ea nola kudeatu behar den Errebaleko eraikinaren garaje-plazen banaketa.	Oinarriak egingo dira plaza bat eskuratzeko bete beharreko baldintzekin, eta zozketa publiko bidez adjudikatuko dira.
Hirigintza	Arragueta 12 zenbakiko bizilagun batek uste du jabeei agindu egin beharko litzaiekeela beren eraikinetako EITak egiteko.	Udalak lankidetzan jardun du Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailak egindako kontzientziazio-kanpainekin, eta modu progresiboan ikuskaritzak egiteko eskatuko du.
Zerbitzuak	Kexu da ez delako Gabonetako argirik jarri Arragueta kalean.	Gabonetako argiak nola jarri erabakitzen duena Eibarko Merkatarien Elkartea da.
Hirigintza	Galdetu du ea emakidako garajerik egin daitekeen Insitutuko behealdeko garajeetan.	Institutuan garajeak eraikitzekeo ideiak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren oniritzia izan behar du, hura baita lurren jabea. Orain arte, proiektuaren kontra azaldu da, eta, hortaz, ezin da aurrera eraman ez baitago Plan Nagusia aurreikusita. Plan Nagusia berrikustean, berriz ere inguru horretako arazoa aztertuko da, soluzioak bilatuko dira, eta hirigintza-tresna egokiak ezarriko dira soluzio horiek aurrera

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea-ekialdea

DATA: 20/11/2019

Saila	Laburpena	Erantzuna
		eramateko.
Obrak	Bizilagun batek eskatu du Jardifñetaren eta Matxariaren arteko bidea —tren-estaziora iristea ahalbidetzen duena— asfaltatzeko.	Azturtu egingo da eta, bidezkoa bada, asfaltatuko diren Kaleen zerrendan sartuko da. Obrak aurrekontu-eskuragarritasunaren mende geratzen dira.
Hirigintza	Galdetu du ea zer gertatu behar den El Cascoren eraikinarekin.	El Cascoko eraikina eraitsi egingo da etxebizitza-eraikin bat jasotzeko.
Alkatetza	Auzokide bat kexu da erdigune-ekialde inguruko bizilagunei hainbat hauteskunde-eskolatan bozkatzea dagokiela, eta salatu du haietako batzuetara joateko arazoak daudela eskailera-mailak daudelako.	Behin Errebal Plaziaren obrak amaitu ondoren Bertan zentralizatuko dira inguruko hauteskunde-mahai gehienak.
Hirigintza	Informazioa eskatu du Udalak erdigunean berdeguneak sortzeko dituen planei buruz.	Udalak aurreikusi du anbulatorioko parkea berrurbanizatzea hura handituz eta ingurua hobetuz. Mekolan, Vildosolaneko txaletak okupatutako partzela urbanizatuko da.
Udaltzaingoa	Jardifñetako auzokide batek esan du, Mertzedarietako ikastetxe parean, espaloi bat dagoela banku batekin, eta ez duela ezertarako balio. Adierazi du hori kendu eta bi norabideko errepede bat egin litekeela.	Bi noranzkoko kale bat egiteko, aparkalekuak ezabatu beharko lirateke inguru guztian, eta, ondorioz, kalte handia eragingo lieke bizilagunei.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea-ekialdea

DATA: 20/11/2019

Saila	Laburpena	Erantzuna
Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatu du Jardiñeta 1 eta 3 zenbakien parean dauden edukiontziak kentzeko eta Aldatze alderantz eramateko, hala, banku- eta arbola-gune hori garbiago geratzeko.	Edukiontzien egoeraren txosten bat egin da eta analisi teknikoaren zain dago. Azterketa horren emaitzak dioena egingo da.
Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatu du Jardiñetako goi aldeko espaloia garbitzeko. Esan duenez, dagoen landarezarekin ez da ikusten.	
Udaltzaingoa	Galdetu du ea handitu litekeen aparkamendua Jardiñetan.	Ingurua konplikatua da eta zaila da soluzioa bat topatzea.
Zerbitzuak	Salatu du argi gutxi dagoela Jardiñeta 24 eta 26 zenbakien parean, han dagoen aldamia dela-eta.	Fatxadaren eraberritze-obra bat egiten denean eta argiari eragiten dionean, obra-sustatzailea da farola berriz jarri behar duena bide publikoan argia bermatzeko.
Zerbitzuak	Kexu da jendeak Ibergain eta Jardiñeta inguruan zabor-poltsak edukiontzitik kanpo lagatzen dituelako.	Orain txartel bidezko irekitze-sistema indargabetuta dago. Edonola ere heziketa kontu bat da.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea-ekialdea

DATA: 20/11/2019

Saila

Laburpena

Erantzuna